

IRITZIA

zuzendariari

BERRIAk irakurleen eskulitzak plazaratzen ditu. Tarte bikoitzera idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAk mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugalde Kultur Parke, 30012 Andoain. iritzia@berria.info

Jose Felix Azurmendi erantzunez

Kaixo Jose Felix: urriaren 6an argitaratu duan oharra irakurri diat. Ez neukean nik inolaz ere ezer izkutatzeko asmorik. Eta orain ere ez. Baina egia bere bidea.

Angeluko bilera horretaz ez nauk batere oroitzin. 1964ko urria aldera Michel Labégüerieren bitartez jakin genuenez, Espainiako gobernu eskaturik, gure deserriraketa bazetorreen. Eta hala izan zuan: 1965eko urtarriaren Angeluko *Oihansta* gure etxea utzi, eta zer etorriko ote zitzaidan ez nekielarik, Belgika aldera abiatu ninduan.

Frantzia-Belgica muga gurutzatzeko *réseau X* (izenaz ez nauk gogoratzin; baina ezkerter jendeak antolatutako «mugalari» multzoa zuan). Eta horretara, isilpean iritsi ninduan Bruselara, eta hango politzian neure burua biharamonean bertan arkeztu nian. Orduako Antwerpenen bizi zuan (bera ere Frantziatik kanporaturik) Federiko Kruttwig famatua.

Beraz, 1964ko udazkenean gertatu bide zuan hik aipatzen duan Martin Ugalderekiko «lehenengo» elkarketa hura. Ni orduan ETAkoa ninduan, bai. Eta Martinekin posta-harremana banian , eta adiskidetasuna ere bai (TorrealdaiakJa-

kin 114an zehazki erakutsi duenez).

Prest negok, beraz, hik esandakoa sinesteko. Baina, sinets egidak: ez diat neure oroimenean bilera izkutu horren arrastorik ere gorde. Badakik: *refoulement* frantsesez, konturatu gabeko zokoraketa kasu garbi bat. Ezta bilera euskara hutsez egin zenik ere! Egia.

Eta bazegok hire aldeko kontu txiki hau. Jone nire emazteak hire nota irakurrita esan didanez, bera bai. Bera oso ondo gogoratzen duk «bilera misterioitsu» bat izan zela Angeluko gure etxean. Eta parte hartzaileak hiruzpalau izan zirela, «barrutik» etorriarik. Gehi, jakina, Martin Ugalde eta ni neu. Baina, arrazoin ulergarriengatik, ez dakiela «hiruzpalau» horiek nor ote ziren...

Alde batetik, 40 urte joan dituk. Eta bestetik, herorrek azaldu duenez, elkarketa hura izkurtua izandu zuan.

Honatz nik esan dezakezan guztia. Eta mila esker.

Jose Luis Alvarez Enparantza
"Txillardegi"
Donostia

Selekzioaren alde

Futbolzalea naizen aldetik, neure erabateko kezka agertu behar dut aspaldion bolo-bolo dabilen zurrumurru bat dela eta: Euskal Selektzio Naziona-

laren Gabonetako partida Anoetako estadioan jokatu omen da. Oraingoz ez da jarri ofizialik agertu eta ez da ahots esanguratsurik entzun ikuspegi abertzale eta erakuntza nazionalako batetik.

Bada, nire uste apalean, kultur eta kirol adierazpenak (gure selekzioak Gabonetan jokatzin duen partida, besteak beste) gure selekzio nazionalaren ofizialtasuna aldarrikatzeko erabili behar dugu, betiere modu eraginkorren. Jai eta aldarrikapen giro batean ahalik eta jenderik gehiena bildu gura badugu, lekuak San Mames zelai izan behar du, arrazoi ulergarriengatik: iristeko dituen bideengatik, biztanle-kopuruarengatik, garrantzi geopolitikoarengatik eta komunikabideen gaineko eraginarengatik, esaterako. Hala jokatu behar gentuke, gure selekzioak Gaztela-Mantxako, Valentziako, Andaluziako eta Nafarroako selekzioek erakartzen duten pertsonakopuru eskasa (edota Kataluniako selekzioak Montjuicen biltzen duenaren hamarrenaren adina) biltzea nahi ez badugu behintzat. Ekar dezagun gogora, bestela, Euskal Herriak Boliviaren aurka jokatu zuen azken partida; horra hor nolako arriksua hartzen dugun. Eta nolako irakurketa egingo luke nazioarteko norgehiagoka ofizialetan parte hartzea galarazten digun Espainiar Estatuak? Ondo go-

goan izan behar dugu nork eta nola sortu dituen aipatutako selekzio autonomikoak, nolako azpilana egiten duten iritziz publikoan, eta estatuaren gidariei eta *Diario de Navarra*-kiaz sartu ziguten gol itzela, ezerezetik «nafar selekzioa» sortuta.

Bestalde, futbolzale eta abertzale izanda, ez legoke gauza ederragorik niretzat euskal eta gipuzkoar futbol federazioak Euskal Herria nazio gisa egituratzeko eta bere lurraldetasunaren alde jarduteko prest ikustea baino. Hartara, gure talde nazionalaren Gabonetako norgehiagoka herrialdez herrialde eramán liteke urtero, txandaka. Zehazki, nik proposatuko nuke aurtengoan Sadarren hastea eta hurrengoan Mendizorroztan jarraitzea; 2006an, lan eta indar metaketa nahikoa egindakoan, izugarrikio jendetza bilduko gentuke Avyron Bayonaisen jokalekuan.

Azaldu ditudan bi irizpideak kontuan izanda (alegia, aldarrikapen irmo eta sendoa egin beharra, batetik, eta lurraldetasuna, bestetik), gai honen arduraduneri zentzudun izan daitezela eta gure herriaren probetxutan joka dezatela eskatzen diet, euren interesak jagon eta txokokeriatan ibili gabe.

Patxi Jagoba Bengoa
Lapatza-Gortazar
Bilbo

larrepetit

Komunikazioa




NAGORE AMONDARAIN

Euskalgetitig atera berri den ikasle bat alboko tabernara sartzekotan da. Han, lasai irakurri ahal izango du BERRIA. Euskararen kalitatearen inguruko artikulua irakurtzen hasi da. Berak euskalgetig arauak koadernoan apuntatuak ditu, baina tabernariari Euskaltzaindian aseteburu luteertako hausnarketa suposatuko duen esaldia bota dio. Tabernariak inongo arazo barik ulertu eta behar den moduan atara dio tragoa. Euskaltgetig aho asko itzalez betetzen dituzte eta zailantzen eraginez mutu mantendu, bera aliz ausartu egin du.

BERRIAN egokitutasun komunikatibo moduan ulertutako kalitateak izan behar duela ardatz irakurri du, bera bat etorri da iritziarekin. Berak ikastearen ibilbidean, euskara *zuzena* baino nahiago du euskara *jatorra*, baina hori baino nahiago euskara *egokia*. Berari asko geratzen zaio oraindik *euskaltzain* izateko, *euskalki* batean berba egiteko ere bide luzea du oraindik, baina *euskaldun berria* den neurrian aldiarik helbururako egokia den euskara darabil. Zuzendariarentzako gutunetako H. Knörren idatzitako sutan jarri du euskaltgetigoko ikaslea. Henrikek egunkari bereko kazetari bati bere klase magistrala eman nahi dio, esanez «aukera gaitza». Jarri berria «aukera huts egiten» esaten dela. Ikasleak ikastearen ibilbidean ikasi du, garrantzitsuagoa dela ikasitakoa baino oraindik ikasteko daukan guztia; estratosferatik bueltaka dabiltzan jakitunak, ordea, bulegoko euren jakiturian geratzen dira. Bitartean, gehiengoak, herri xumea, baso bat ardo edo ardo baso bat eskatuz euskaraz komunikatzen ari da.

galde-eskeak



KIKE AMONARRIZ
EUSKAREN
KALITATEA, ZERTAZ ARI
GAREN, ZERGATIK ETA
ZERTARAKO LANAREN
EGILEETAKO BAT

Gazteek darabilten euskararen gabeziak aztertu dituzue. Non daude gabezia horien iturriak?

Nagore Sagastizabal

Ezer baino lehen, esan behar da gaur egungo gazteek gure belaunaldiak adin horretan baino askoz ere euskara gehiago erabiltzen dutela oro har. Tolosan, esate baterako, 14 urte genituenean, gazte kaletar guztiok erdaraz egiten genuen gure artean. Eta aurrerapen hori ere, bada kalitatea.

Gaurko gazte euskaldunen ezaugarriak, berriz, asko aldatu dira: elebakarik ez dago, askoz gehiago duk dakite euskaraz, multzo handi bat erdaliduna da jatorriz, ia gazte euskaldun guztiak alfabetatuak dira, gehienak ingurune erdalidunetan bizi dira, hizkerak gero eta nahasiagoak dira... Euskaraz gehiago egiten dute, baina erdaren eragina eta interferentziarik ere handiagoak dira, eta oso nabarmena da, besteak beste, argot nazionalaren hutsunea.

Bidali zure galderak iritzia@berria.info helbide elektronikora.

www.berria.info

Ezagutu duzu 'bullying' edo gazteen arteko tratatu txar kasurik zure inguruan?

BAI	%74
EZ	%26

Nire eskolan bazegoen horrelako kasu bat, baina ez zen horren nabari eta izugarria izan. Hala ere, oso mutil jatorra dela esan nahi dut. **Landar**

Bai. Nire klaseko lagun bati gertatu zitzaion. Lodikotea zen. Ziurrenik, erasotzaileei aurre egin ahal zien, baina oso sentibera zen bera. Klasekoek iseka egiten zioten eta patioan dirua eta janaria lapurtzen. Lotsagarriena da iraskasleek bazekitelera eta, nahiz eta jakin, ezer ez zutela egin. Dena den, nik harekin hitz egiten nuen, batzuetan nire kontra zer edo zer entzun nuen, baina izaera gogorrekoa naiz eta ez zuten gehiago esan. Azkenean, mutil hark institututik alde egin zuen, beste batera. Benetan lotsagarria eta frustratzeko modukoa. **Patri**

hitz beste

Armazoiarena

ANJEL LERTXUNDI

Hiriaren bihotzera zoazelarik, armazoi-tramankulu erraldoi bat ikusiko duzu bazter guztietatik. Lehen, armazoiaren zegoen tokian, Jesus izeneko orakulu tzar bizardun bat bizi zen, bere bihotz handia eskuan eta *Reinaré en España* mehatxu eginez etengabe. Orain, aldiz, zurrumuru gaizto asko dabil hirian. Handia da hiritarren jakin-mina, handiak dira armazoiari buruzko mira eta kezka. Zer misterio ezkutatzen du armazoiak, zein da hain gordean daukan sekretua? Orakuluaren deserrira bidaliko ote dute? Armazoiak ez ote du ezkutatzen hiria mehatxu zaharretik askatuko duen zerbait?

Nolanahiere den, hiritar batzuek izuz bizi dute, beste batzuek itzaropenez eta denek urduritasun halako batez armazoiaren kenduko duten egun handiaren itxaronaldia: ez zen ba Ulises ezkutatuko bertan, hiria hartzeko momentu egoikiaren zain *reinaré en Troya* esaka?